

12/25

irizpena

Nekazaritza-ustiatzeki aholku emateko
entitateena, eta horien aitortza eta
erregistroaren
dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbo, 2025eko irailaren 16a



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Irizpena 12/25

I.- AURREKARIAK

2025eko uztailaren 2an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren idazkia jaso zuen, *Landa Garapenaren Euskal Sarearen egitura, osaera eta funtzioak ezartzen dituen* Dekretuaren Proiektuari buruzko txostena eskatuz, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Hizpide dugun arauaren xedea da, 1.1. artikulua araberak, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ustategietarako aholkularitza-zerbitzua arautzea, baita zerbitzu hori emango duten entitateen araubidea, aitortza eta erregistroa ere

Jasotako dokumentuaren kopia berehala bidali zitzaion Kontseiluaren Osoko Bilkurako kide guztiei, proposamenak eta iritzia eman zitzaion eta horiek, aldi berean, zegoen Lan Batzordeari helaraz ziezazkieten, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Araubidean ezarritakoarekin bat etorritz.

2025eko irailaren 11n, Ekonomia Garapenerako Batzordea bildu zen, eta, hartutako erabakietan oinarrituta, Irizpen-Proiektu hau egin zen, Batzordearen Osoko Bilkuran aztertzeko. Han aho batez onartu zuen.

II.- EDUKIA

Azalpen-zatia

Kontseiluaren irailaren 29ko 1782/2003 (EE) Erregelamenduaren bidez, nekazaritza-politika erkidearen esparruan zuzeneko laguntzen araubideei aplikatu beharreko xedapen komunak eta nekazarienezako laguntza-araubide jakin batzuk ezarri eta aldatzen dira.

Europar Batasunak xedatu zuen estatu kideetako agintari eskudunek sistema bat ezarri behar zutela nekazari lurren eta ustategien kudeaketari buruzko aholkuak emateko, eta sistema horrek izendatutako agintaritzaren baten edo batzuen edo organismo pribatuaren ardurapean egon behar zuela. Era berean, aholkularitza-zerbitzuak emango zituzten entitateek izan beharko zituzten baliabide materialak eta giza baliabideak, esperientzia eta fidagarritasuna ezarri zituen, eta estatu kideei askatasuna eman zien horretarako prozedura ezartzeko.

Agindu hori betetz, Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritza-ustategiei aholkuak emateko erakundeei buruzko abenduaren 26ko 272/2006 Dekretua onartu eta argitaratu zen.

Ondoren, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legeak honako hau xedatu zuen 91. artikuluan: “Nekazaritza-arloko euskal administrazioek laguntza eta bultzada emango diete, (...) nekazaritza-ustategiei kudeaketa tekniko eta ekonomikoko zerbitzuak, titularren ordeztzerbitzuak edota aholkularitza integrala ematen dizkieten erakundeei, irabazi asmorik gabeko erakundeak eta nekazaritza-kooperatibak lehenetsita”. Era berean, honako hau xedatu zuen: “Arauz sortu eta erregulatuko da erakunde horien errolda, bai eta erakunde horiek halakotzat aitortzeko prozedura ere”.

Nekazaritza-politika erkidea (NPE) 2023-2027 aldirako erreformatuta, onetsi egin da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamendua, nekazaritza-politika erkidearen esparruan estatu kideek egin beharreko plan estrategikoetarako

laguntzari buruzko arauak ezartzen dituen (NPEaren plan estrategikoak).

Erregelamendu horrek, 15. artikuluan, ustiategientzako aholkularitza-zerbitzuen gutxieneko ildo orokorrak jasotzen ditu. 78. artikuluan, ezagutzak trukatzeko eta informazioa zabaltzeko laguntzak jasotzen ditu; laguntza horiek berrikuntza, prestakuntza eta aholkularitza sustatzeko egoki den edozein ekintzaren kostuak estal ditzakete, zerbitzuak ematen dituzten entitateen bitartez bideratuta.

Ondorioz, Nekazaritza-ustiategiei aholkuak emateko erakundeei buruzko abenduaren 26ko 272/2006 Dekretua egokitu egin behar da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamenduak aholkularitza-zerbitzuei dagokienez sartutako aldaketetara.

Hainbeste denez eguneratu behar dena, eta aldatu beharreko dekretua 2006. urtekoa denez, egokiena da Nekazaritza-ustiategiei aholkuak emateko erakundeei buruzko abenduaren 26ko 272/2006 Dekretua indargabetzea eta nekazaritza-ustiategientzako aholkularitza-sistema arautuko duen dekretu berri bat onartzea, NPEPE berriak sartutako araudi-aldaketetara, gizartearen eskarietara eta EAEko nekazaritza-administrazioen ekintza proaktibora egokituta.

Xedapen-zatia

1. artikulua.— Xedea eta helburua.

2. artikulua.— Aholkularitza-zerbitzuak.

3. artikulua.— Azpikontratazioa.

4. artikulua.— Aholkularitzaren hartzaileak.

- Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden nekazaritza-ustiategi guztiak.
- Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritza-jarduera bat hasi nahi duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak.
- Nekazaritza-kooperatibak.
- Nekazaritzako makineria erabiltzeko kooperatibak (NMEK)
- Ekoizle-elkartek.
- Landa-garapeneko elkarteak.
- Eraldaketarako nekazaritza-sozietateak.

5. artikulua.— Aholkularitza-entitateen betekizunak.

6. artikulua.— Aholkularitzako plan orokorra

7. artikulua.— Aholkularitza-entitateak aitortzeko eskaera

8. artikulua.— Aholkularitza-entitateen aitortza

9. artikulua.— Aholkularitza-entitateen betebeharrak.

10. artikulua.- Aholkularitza-entitateen aitortza aldatzea.

11. artikulua.- Jarduera etetea

12. artikulua.- Kontrola eta ikuskapena

13. artikulua.- Aholkularitza-entitateen aitortza une baterako etetea edo kentzea.

14. artikulua.- Ustiatzei Aholku Emateko Erakundeen Euskal Erregistroa.

15. artikulua.— Ustiatzei Aholku Emateko Erakundeen Euskal Erregistroan inskribatzea, datuak aldatzea, alta etetea edo azkentzea.

16. artikulua.- Ustiatzei Aholku Emateko Erakundeen Euskal Erregistroaren edukia.

17. artikulua.— Ustiatzei Aholku Emateko Erakundeen Euskal Erregistroko datuak eskuratzeko, zabaltzeko eta lagatzeko arauak.

18. artikulua.- Finantzaketa publikoa.

Lehenengo Xedapen Iragankorra—Aurretiko inskripzioen indarraldia.

Bigarren Xedapen Iragankorra—Izapidetzen ari diren espedienteak.

Xedapen indargabetzaile bakarra.—Arauak indargabetzea

Azken xedapen bakarra—Indarrean jartzea.

ERANSKINA

Aitorpena eskatzeko ereduaren oinarrizko edukia

Aitorpena aldatzeko ereduaren oinarrizko edukia

Jarduera uzteko ereduaren oinarrizko edukia

III.- GOGOETA OROKORRAK

Arau-esparrua

Irizpen honen II. atalean jaso den bezala, Europako Kontseiluaren irailaren 29ko 1782/2003 (EE) Erregelamenduak ezarritako agindua betez, abenduaren 26ko 272/2006 Dekretua, nekazaritza-ustiatzei aholkuak emateko erakundeei buruzkoa, onartu eta argitaratu zen EAEn. Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ustiatzietarako aholkularitza-zerbitzuek bete behar dituzten baldintzak ezarri zituen, bai eta aholkularitza-zerbitzuak ematen dituzten erakunde pribatuen aitorpena ere, “Nekazaritza Ustiatzei Aholkularitza emateko Erakundeen Euskal Erregistroa” sortuta.

2023-2027 aldiko Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) erreforma etortzeaz batera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/2115 (EB) Erregelamendua, 2021eko abenduaren 2koa, onartu da, estatu kideek nekazaritza-politika bateratuaren esparruan taxutu behar dituzten plan estrategikoei laguntzeko arauak ezartzen dituen (NPBren plan estrategikoak).

Erregelamendu horren 6.2. artikulua honako zeharkako helburu hau ezartzen du: **“nekazaritza eta landa-eremuak modernizatzea, nekazaritzako eta landa-eremuetako ezagutza, berrikuntza eta digitalizazioa sustatuz eta bateratuz, eta nekazariak horretaz jabetu daitezen sustatuz, ikerketarako, berrikuntzarako, jakintza-trukerako eta prestakuntzarako sarbidea hobetuz”**.

15. artikulua **nekazaritzako ustategietarako aholkularitza-zerbitzuen gutxieneko ildo orokorrak jasotzen ditu:**

- 2. atalak honako hau xedatzen du: **“Ustategietarako aholkularitza-zerbitzuek alderdi ekonomikoak, ingurumenekoak eta sozialak jorratuko dituzte, egun erabiltzen diren nekazaritza-ustiapeneko jardunbideak kontuan hartuta, eta informazio teknologiko eta zientifiko eguneratua emango dute, ikerketa- eta berrikuntza-proiektuetatik abiatuta, bai eta ondasun publikoen hornidurari dagokionez ere.**

Ustategietarako aholkularitza-zerbitzuen bidez, laguntza egokia eskainiko da ustategiaren garapen-zikloan, honako alderdi hauek aintzat hartuta: hasierako ezarpena, ekoizpen-ereduen bihurketa kontsumitzaileen eskariaren arabera egokitzeak, nekazaritzako jardunbideen arloko berrikuntza, klima-aldaketaren aurreko erresilientziako nekazaritza-teknikak —besteak beste, nekazaritza arloko basogintza eta ekologia—, animalien ongizatearen hobekuntza eta, beharrezkoa izanez gero, segurtasun-arauak eta gizarte-laguntza.

- 3. atalak ondokoa dio: **“Estatu kideek aholkularitza inpartziala dela eta aholkulariak behar bezala kualifikatuta eta prestatuta daudela eta interes-gatazkarik ez dutela zainduko dute”**.

Eta erregelamenduaren 78.1 artikulua xedatzen duenez, **“estatu kideek laguntzak eman ahalko dituzte jakintza trukatzeko eta informazioa zabaltzeko”**.

Esparru horretan, abenduaren 26ko **272/2006 Dekretua indargabetzea** eta nekazaritzako ustategiei aholkularitza emateko sistema arautzen duen **manu berria**, arau-aldaketetara eta gizarte-errealitate berrira egokitzen dena, **onartzea erabaki da**.

Irizpena emateko bidali diguten arauaren balorazio orokorra

Nekazaritza-ustategiei aholkularitza emateko sistema arautzen duen **“Nekazaritza-ustategiei aholkularitza emateko erakundeei, haien aitorpenari eta erregistroari buruzko dekretuaren proiektua”** delakoaren inguruko irizpena emateko eskatu digute, eguneratzeen eta arau-aldaketen inguruabarretara egokituta. Ondorioz, **arau egokia dela uste dugu. Nolanahi ere, kezka sortzen diguten eta zalanztza egiten dugun alderdi batzuk azaldu nahi ditugu.**

Aurretiazko gaiak

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea jakitun da sektorearen arazoez, eta elkartasuna adierazi nahi diogu. Horregatik, gure aburuz, arazoaren dimentsioari buruzko alde aurreko hausnarketa sakona egin behar zen, eta Administrazio Publikoak hainbat aukera aztertu behar zituen arazoari erantzuteko. Irizpena emateko igorri diguten arauan erabaki den aholkularitza-erakundeen egiturak, zilegi izanagatik ere, zalanztza sorrarazi digu egokiena ote den. Jarraian, arrazoiak azalduko ditugu.

Aholkularitza-erakundearen aitorpena lortzeko betekizunak direla eta

Aholkularitza-erakundearen aitortpena lortzeko, 5. artikulua honako baldintza hauek eskatzen ditu, besteak beste:

- Irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatua izatea;
- Gutxienez lokal bat izatea lurralde historiko bakoitzean;
- 53 pertsonatik gorako lantaldea izatea, ondokoek osatuta: kudeatzailletza edo gerentziaren eginkizuna betetzen duen pertsona bat, Ekonomiako lizentziadun bat eta Zuzenbideko lizentziadun bat, eta gutxienez, unibertsitate-titulazioa duten 50 pertsona kualifikatu. Horietatik % 50ek, gutxienez, 5 urteko esperientzia izan beharko dute aholkularitza-lanetan.
- Nekazaritza-ustategiei aholkularitza ematen eta horien kudeaketa tekniko-ekonomikoa egiten gutxienez 7 urteko esperientzia egiaztatua izatea. Esperientzia aholkularitza-erakundeak berak edo edo langile kualifikatuen % 30ek izan beharko dute;
- Oro har, zerbitzuen merkataritza-jarduerarik edo produktuen salmentarik ez egitea;

Betekizun horiek guztiak batera aintzat hartuta, prozedura-memoriak berak aitortzen duen bezala, agerikoa da aitortpena lortuko duten erakundeek tamaina garrantzitsua izango dena, eta aurreikus daiteke oso erakunde gutxi aterako dutela aitortpena Euskal Autonomia Erkidegoan. Horregatik, gure ustez, eskakizun-maila hori ezarri gero, aurreikusi gabeko emaitzak eta eraginak sor litezke, ikuspegi teknikitik gaituta dauden erakundeei eragin liezaieke, eta esandako baldintzak bete ezin dituztenez gero, bazter geratuko lirateke.

Aitortutako aholkularitza-erakundeek aholkularitza-zerbitzuren bat edo gehiago azpikontratatzeari dela eta

Erakunde pribatuetarako aholkularitza-lana kanpora aterata, 3. artikulua ezartzen duenez, aitortu gabeko erakundeak azpikontrata daitezke, gehienez ere, urteko fakturazioaren % 40raino. Azpikontratei gagozkiela, inpartzialtasun-, osotasun- eta independentzia-konpromisoa bete behar dela ebatzi da, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez.

3. artikulua.- Azpikontratazioa.

1.- Aitortutako aholkularitza-entitateek 2. artikuluan ezarritako aholkularitza-zerbitzuren bat edo batzuk azpikontratatu ahal izango dizkiete Euskal Autonomia Erkidegoan zerbitzuak ematen dituzten aitortu gabeko beste entitate batzuei, betiere azpikontratazioak ez badu aitortutako urteko fakturazioaren % 40 gainditzen.

2.- Aholkularitza-zerbitzuren bat azpikontratatzeko erakundeek konpromisoa hartuko dute aholkularitza inpartzialtasunez, osotasunez eta bere lanean edozein motatako interes pertsonal, komertzial edo independenteki emateko. Konpromiso hori kontratuan jasoko den erantzukizunpeko adierazpen baten bidez gauzatu da.

Europar Batasunak lehentasunezkoztat eta nahitaezkoztat jotzen du aholkularitza inpartziala izan dadin eta teknikari aholkulariek behar bezala kualifikatuta eta behar bezala prestatuta egon daitezen, eta interes-gatazkarik sor ez dadin. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak gogoeta egin nahi du, **hain azpikontratazio-maila handia onartzeko egokitasuna zalantzan jartzeaz gain, bidezkoa ote den azpikontratatzeko diren erakundeek 5. artikuluko 10. eta 11. paragrafoetan agertzen diren eskakizunak betetzeko beharrik ez izatea; aitzitik, 3.2 artikulua dioenez,**

inpartzialtasun-konpromisoa kontratuan jasotzen den erantzukizunpeko adierazpen baten bidez gauzatuko da.

Baimentzen den azpikontratazioaren ehunekoa (% 40) berriro ere hizpide hartuta, gogorarazi behar dugu prozedura-memoriak eta arau-inpaktuaren memoriak diotela azpikontratazioak hondarrekoa izan behar duela. Nolanahi ere den, zinez uste dugu funtsezkoa dela azpikontratak egiaztatzea izan dezan azpikontrataturako zerbitzuak emateko beharrezkoa den kaudimen teknikoak.

5. artikulua.- Aholkularitza-entitateen betekizunak.

10. Inpartziala dela egiaztatzea. Horretarako, ez du zerbitzu-jarduera komertzialik egin behar, eta ezin da jardun produktuen salmentan eta horniduran (hala nola zoosanitarioak, ongarriak, ekipamendu-ondasunak edo beste hornidura batzuk), non eta zerbitzu edo produktu horiek merkatuan ez badaude. Haatik, honako hauek egin ahal izango ditu: nekazaritzako aseguruaren aholkularitza-, kontratazio- eta kudeaketa-jarduerak, baitu albatariak aholkularitza-zerbitzuan behar dituen produktuak saltzeko eta hornitzeko jarduerak ere. Nolanahi ere, baimendutako merkataritza-jardueretatik eratorritako diru-sarreraren batura ezingo da izan entitatearen aholkularitza-zerbitzuetatik eratorritakoaren % 25 baino handiagoa.

11. Entitateko aholkularien interes-gatazkarik ez dagoela egiaztatzea. Horretarako, entitateak interes-gatazka saihesteko sistema edo prozedura bat izan beharko du ezarrita. Gatazkatzat honako hau hartuko da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduak, Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza-arauei buruzkoak, 61. artikulua 3. apartatua zehaztutakoa.

IV.- GOGOETA BEREZIAK

3. artikulua. Azpikontratazioa

Artikulu horretan xedatzen denez, erakunde pribatuetarako aholkularitza-lana kanpora aterata, onartu egiten da aitortu gabeko erakundeak ere azpikontratatzea, gehienez ere, urteko fakturazioaren % 40raino, eta inpartzialtasun-, osotasun- eta independentzia-konpromisoa erantzukizunpeko adierazpen baten bidez gauzatzen da.

Gogoeta orokorretan adierazitako alderdiak nabarmendu nahi ditugu.

5. artikulua. Aholkularitza-erakundeen betekizunak

Gogoeta orokorretan adierazitako alderdiak nabarmendu nahi ditugu. Aitorpena lortzen duten erakundeen tamaina esanguratsua izango da, eta aurreikus daiteke EAEn oso erakunde gutxi aterako dutela. Eskakizun-maila hori ezarri gero, aurreikusi gabeko emaitzak eta eraginak sor litezke, eta ikuspegi teknikitik gaituta dauden erakundeak bazter gera litezke, esandako baldintzak ezin bete ditzaketelako.

LEHEN XEDAPEN IRAGANKORRA

Badirudi 3 hilabeteko gehieneko epea ez dela nahikoa gaur egun ustategietarako aholkularitza-erakundeen euskal erregistroan izena emanda dauden aholkularitza-erakundeek dekretu-proiektuan ezarritako betekizunak bete ditzaten, betekizun horien eskakizun-maila kontuan hartuta, are gehiago

8. artikulua 3 hilabeteko epea ezartzen baitu Nekazaritza Zuzendaritzako titularrak aholkularitza-erakundeen aitortzea emateko edo ukatzeko ebazpena eman dezala.

V.- ONDORIOA

Euskadiko EGABen ustez, egokia da *“Nekazaritza-ustategiei aholkularitza emateko erakundeei, horien aitortzenari eta erregistroari buruzko dekretu-proiektua”* izapidetzea, kontsulta-organo honek egin dituen oharrek kontuan hartuta.

Bilbon, 2025eko irailaren 16an

OE Presidentea

Javier Muñecas Herreras

Idazkari Nagusia

Izaskun Astondoa Sarria